


MEMORIA 2020

UR EDANGARRIAREN KALITATEA

**AIARAKO UR PARTZUERGOA-
KANTAURIKO URKIDETZA DA
AIARALDEKO 27 UDALERRITAKO
KONTROL ETA ZAINZA UNITATEA.**



Kantauriko

URKIDETZA

Consortio de Aguas
Ur Partzuergoa

URTEAN ZEHAR EGINIKO BARNEKO ZEIN KANPOKO 3.500 KONTROLEI ESKER, KANTAURIKO URKIDETZA GAI DA BERE 12 HORNIDURA-EREMUETAKO UR EDANGARRIAREN KALITATEA BERMATZEKO, BALIZKO EZ-BETETZEAK DETEKTATZEKO ETA TRATAMENDUA EGOKITZEKO UNE BAKOITZEKO PREMIEN ARABERA.

Aiarako Ur Partzuergoaren-Kantauriko Urkidetzaren funtzioak dira: urak bildu edo lurpetik ateratzea, urtegieta gordetzea, garraiatzea, tratatzea eta amaierako erabiltzaile handienganaino edo banaketa-sareko depositu nagusietaraino eramatea (Sare Primarioko ur hornidura) eta, hortik, amaierako erabiltzaileari ur-hornidura eskaintzea (kontsumitzailearen txorrota).

Kantauriko Urkidetzak badu hornidura-laborategi bat, non funtzio hauek betetzen baitira:

- uraren kalitatearen kontrola eta jarraipena jatorrian: urtegiak, ibaiak eta iturburuak.
- tratamendu-prozesuen kontrola, jarraipena eta gainbegiratzea tratamendu-estazioetan.
- uraren kalitatearen kontrola eta jarraipena gizakiaren kontsumorako: tratamendu-estazioak, deposituak, banaketa-sareak eta kontsumitzailearen txorrota, Gizakiaren Kontsumorako Uraren Zaintza eta Kontrol Unitateari buruzko 140/2003 Errege Dekretua betez.



Laborategiak badu kalitatearen kudeaketa-sistema zertifikatu bat, **UNE-EN ISO 9001:2015** arauaren arabera emana, **“Kontsumo publikorako uraren laginak hartzeko eta analisi fisiko-kimikoak eta mikrobiologikoak egiteko.**

Eginiko kontrol analitikoaren arabera, partzuergoak kontrolatzen dituen 12 hornidura-eremuek **“EGOKIA”** kalifikazioa lortu dute 2020an.

UR EDANGARRIAREN KALITATEA KONTROLATZEKO JARDUERAK



Ur-bilketak, UETEak, Deposituak eta Punpaketa-estazioak kontrolatzea eta gainbegiratzea.

Arazketa-prozesuan uraren tratamendua gainbegiratzeko eta egokitzeko ekintzak.

- Ur sartu berriaren, prozesuan dagoen uraren eta tratatutako uraren etengabeko barne kontrolak egitea.
- Kontrol bereziak egitea mikrozinak, trihalometanoak eta erradioaktibitatea detektatzeko hornitutako uretan.
- Neurgailuetako monitorizazio-, kalibrazio- eta mantenimendu-lanak etengabe gainbegiratzea instalazio desberdinetan.
- GIS sistemaren mantenimendua: instalazioak, banaketa-sareak eta aldatu diren gainerako egiturak eguneratzea.
- Urruneko komunikazio-sistema, muga kritikoak gainditzen direnerako alarma batekin, UETE guztietan eta kontrolatzen diren depositu eta punpaketa-estazio gehienetan.



Horniduraren Kontrol eta Kudeaketarako Programa bat garatzea.

KANTAUARIKO URKIDETZAK kontrolatzen eta zaintzen dituen hornidura-eremu guztietara bideratutako programa bat da, osasun arloko organismo eskudunek onartua. Halere, onartu baino lehen, inplikaturako udalerrri edo kontzeju guztiek formalizatu zuten kudeaketaren enkargua.

Bere helburua da ur edangarriaren kalitatea bermatzea. Analisisien emaitzak aldi berean behin kargatzen dira EAEko Kontsumoko Uren Informazio Sistemari (EKUIS).

Hona hemen hornidura-eremu guztietan egiten diren kontrolak:

- Barneko kontrol analitikoak ura biltzean, UETEetan sartzean eta deposituetatik irtetean.
- Barneko kontrolak banaketa-sarean eta kontsumitzaileen txorrotetan.
- Uraren kanpoko kontrol analitikoak, "profil osoa" aztertuta, bai eta erradioaktibitateak, mikrozinak, trihalometanoak edo unean uneko egoeraren arabera kontrolatu beharreko beste edozein parametro.



ANALISIEN EMAITZEKIN BEHAR BEZALA EGOKITU DAITEZKE TRATAMENDURAKO JARRAIBIDEAK, HORRELA URAREN ARAZKETA-PROZESUA OPTIMIZATZEKO ETA KALITATE HANDIKO PRODUKTU BAT ESKAINTZEKO.

URTEKO KONTROLEN BALANTZEA

Ur-bilketetako

176

lagin aztertu dira,
tratatu baino lehen.

Tratatu ondorengo

3308

ur lagin aztertu dira 12
hornidura-eremuetan.

Profil analitikoak:

- UETE-etako eta banaketa-deposituetako 152 kontrol-analisi.
- Banaketa-sareko 43 kontrol-analisi.
- Kontsumitzaileen txorrotetako 117 analisi.
- Profil osoko 22 analisi.
- Erradioaktibitatea neurtzeko 10 analisi.
- 17 mikroztina-analisi
- 2.947 kontrol organoleptiko eta hondar kloroaren analisi deposituetan, banaketa-sarean eta kontsumitzaileen txorrotetan



EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILAREN AUDITORETZA

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak urtero egiten ditu Kantauriko Urkidetzak kontrolatutako hornidura-eremu batzuen auditoretzak, urte bakoitzean aurkeztutako Kontrol eta Kudeaketa Programaren betepen-maila ebaluatzeko.

Auditoretza egiteko kontuan hartzen dira alderdi hauek:

- Kontrol eta Kudeaketa Programa.
- EAEko Kontsumorako Uren Informazio Sisteman (EKUIS) hornidura-eremuei buruz dagoen informazioa (egiturak, analitikak, trazagarritasuna...).
- Egituren ikuskapenetatik jasotako informazioa (laginak, deposituak, UETEak, punpaketak...)
- Kontrol eta Zaintza Unitateak (KZU) kontrol eta kudeaketa lanei buruz emandako erregistroak.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak 3 hornidura-eremuren auditoretzak egin ditu: Añes, Artomaña eta Baranbio. Horietako batean ere ez da agertu "desadostasunik", eta hauxe izan da 3 eremuen balorazioa:

**BALORAZIO
OROKORRA:**

**Goi-mailako
aldekua**





HORNIDURAREN KONTROL ETA KUDEAKETARAKO PROGRAMAREN DATUAK

Hornidura- eremua	Laginak	UETE/ Depositua	Kontrola	Txorrota	Osoa	Erradioak- titatea	Mikrozi- tinak	Organo- leptikoa
Artziniegako urtegia	67	14	6	16	3	2	7	309
Maroñoko urtegia	52	39	12	39	5	2	7	984
Larrinbe	14	13	3	8	1	0	0	281
Laudio	9	65	5	12	4	1	2	195
Luiaondo	9	12	2	6	2	1	1	191
Arespalditza	0	1	2	6	2	1	0	107
Artomaña	4	1	1	4	1	1	0	104
Añes	4	1	1	4	1	0	0	102
Agiñiga-Marño	4	1	2	4	1	0	0	143
Soxo-Opellora- Lexartzu	5	2	3	6	1	1	0	209
Erbi-Luxo- Madaria-Ozeka	3	1	4	6	0	0	0	160
Baranbio	5	2	2	6	1	1	0	162
GUZTIRA	176	152	43	117	22	10	17	2947



URAREN KALIFIKAZIOA EGINIKO KONTROLEN ARABERA

Hornidura-eremua	Analisiak guztira		Egokitasuna	Kalifikazioa
Artziniegako urtegia	357	➔	100%	Egokia
Maroñoko urtegia	1088	➔	100%	Egokia
Larrinbe	306	➔	100%	Egokia
Laudio	284	➔	99%	Egokia
Luiaondo	215	➔	100%	Egokia
Arespalditza	119	➔	100%	Egokia
Artomaña	112	➔	100%	Egokia
Añes	109	➔	100%	Egokia
Agiñiga-Marño	151	➔	100%	Egokia
Soxo-Opellora-Lexartzu	222	➔	100%	Egokia
Erbi-Luxo-Madaria-Ozeka	171	➔	99%	Egokia
Baranbio	174	➔	99%	Egokia



Kantauriko

URKIDETZA

Consortio de Aguas
Ur Partzuergoa